

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

#### **Alkatearen dekretua, 2019ko irailaren 13koa, Udalaren Eskola Kontseiluko lehendakaritza eskuordetzeari buruzkoa**

2019ko maiatzaren 26ko tokiko hauteskundearen ondorio den Udalbatza eratu delarik, erakundeak parte hartzen duen kide anitzeko organoetan hura ordezkatzeko duten pertsona fisikoen izendapena berraztertu beharra dago.

Gasteizko Udaleko Eskola Kontseiluko araudiak 12. artikuluan xedatzen duenez, hiriko alkateari edo hark eskuordetzen duen zinegotziari dagokio Gasteizko Udaleko Eskola Kontseiluko lehendakaria izatea.

Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 124. artikuluan xedatzen duenez, bestalde, alkateak bere funtzioetako batzuk zinegotzien esku utzi ditzake, dekretu bidez.

Beraz, hau

Xedatu dut

Estíbaliz Canto Llorente zinegotziari eskuordetzea Udalaren Eskola Kontseiluko lehendakaritza.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko irailaren 13an

*Alkatea*

**GORKA URTARAN AGIRRE**